 ktxabank	<b>URRUNEKO BANKA</b>	EPIGRAFEA <b>14</b>
	Egun honetatik indarrean: 2015-09-16	1. orria 3(e)tik

**URRUNEKO BANKA ZERBITZUAK** Bezeroaren kontratueta eta beste zerbitzuetara sarbidea ematen duten sistema guztiak biltzen ditu (Internet, telefono, Wap, telebista digital edo urruneko zerbitzuetarako erabil daitekeen beste edozein gailu).

## 1. INTERNET

**1.1 INTERNET BIDEZKO ENPRESENTZAKO ZERBITZUA:** Bezeroari finantza-eragiketak egiteko Internet bidez ordenagailua Kutxabankekoarekin konektatzea ahalbidetzen dion zerbitzua da.

- Konexio-kuota: 72 euro urtean edo zati baliokide bakoitzean.
- Fitxategien transmisioa: 0,60 euro transmisio bakoitzeko.

**1.2 EDITRAN** edo antzeko zerbitzuak: fitxategi handiak erabiltzea ahalbidetzen duen protokolo berezien bidezko ordenagailuetarako komunikazio-zerbitzua da.

- Alta emateko kuota eta instalazioa: 400 euro (bakarra).
- Konexio-kuota: 50 euro hilean.

**1.3 KANPO ZERBITZARIEN KONEXIOAK:** Kutxabankenak ez diren softwareen bidez bezeroei informazioa ematea, esaterako, "Cerg Finance" bidez eta informazioa kudeatzeko beste batzuen bidez.

- Alta emateko kuota eta instalazioa: 400 euro (bakarra).
- Konexio-kuota: 50 euro hilean.

**1.4 FITXATEGIEN TRANSMISIOA (aeb43):** Bezeroei kontuko mugimenduei buruzko informazioa ematea AEB43 formatuaren bidez.


- Ohar bakoitzeko: 0,15 euro

**1.5 KORRESPONDENTZIA ELEKTRONIKOA:** Bezeroari posta bidezko korrespondentziaren informazioa ordenagailuan jasotzeko aukera ematen dio, dokumentuen PDF fitxategien bidez, inprimatzeko, gordetzeko eta kopiak eskatzeko aukerarekin (etxera igorpena).

- Alta emateko kuota: doakoa
- Kopia-eskaera bakoitzeko: 0,35 euro

## 1.6 BANKUA ETXEAN ZERBITZUA

- Telefono-sare kommutatu bidezko konexioa (CSB43). Mantentze-kuota: 10,00 euro hilean.
- Saltokiekin konektatzeko zerbitzua (Eusko Jaurlaritzaren PIC programa). Konexio-kuota: 15,00 euro (behin bakarrik, konektatzean)

 kutzabank	<b>URRUNEKO BANKA</b>	EPIGRAFEA <b>14</b>
	Egun honetatik indarrean: 2015-09-16	2. orria 3(e)tik

**1.7 ALERTA ZERBITZUA:** Zerbitzu honen bidez, Kutxabankek bezeroari honako hauei buruzko informazioa ematen die e-mailaren, onlineko bankuko mezularitzaren edo telefono mugikorraren bidez (SMS bateragarria operadore guztiekin):

I. Eragiketa garrantzitsu batzuk, adibidez: Nomina edo pentsioaren ordainketa, konturako sarrerak, baloreak salerosteko aginduak, saldo aldaketak eta abar.

- Alta-kuota: doakoa
- SMS ohar bakoitzeko: 0,20 euro (\*)
- Mezularitzako abisuak eta e-mailekoak: doakoa

(\*) Kontura egindako sarreren hilabete lehen abisuagatik, nomina/pentsioa ordaintzeagatik eta baloreen salerosketagatik SMS bidezko abisuak doakoak dira.

II. Txartelen eragiketak, bai eragiketa indibidualaren zenbatekoa izandako alertei dagokienak, bai bezeroak ezarritako eguneroko muga gainditzean bidalitakoak:

- Alta kuota: doakoa
- Hileko kuota: 0,90€ zerbitzu hau kontratatuta duen txartel bakoitzeko

**Segurtasuneko doako SMSa:** Txarteletarako pertsonalizatutako alerten zerbitzua kontratatuta ere, Kutxabankek doan jakinarazten die bezeroei SMS bidez **txartel bakoitzeko metatutako eguneroko erosketak 500€** baino gehiagoko zenbatekoarekin egiten dituztenean.

### 1.8 CSBnet ZERBITZUAREN ERABILERA

- Komisioa: 10 euro seihileko

CSBnet zerbitzuak datu-basea gordetzea ahalbidetzen dio bezeroari, hortik helbideratze-sortak, hornitzaileen ordainketak, nominen ordainketak eta abar eskuratzeko; hau da, zordunketa edo ordainketen fitxategiak CSBko truke-formatuetan (CSB 19, 34, 58...).


**1.9 BALORE ZERBITZUA DENBORA ERREALEAN:** Merkatuen eta baloreen denbora errealeko oinarriko informazioa. Gaur egun, zerbitzu hori Espainiako merkatu iraunkorrak eskaintzen da:

- Alta emateko kuota: doakoa.
- Hileko kuota: 9 euro (\*)

(\*)Zenbatekoa hileroko aldizkakotasunarekin kobratuko da bezeroak hilabete natural horretan zerbitzua erabili bada. Zerbitzura sartzen ez bada, hilabete horretan ez da kostua zordunduko. Alta-bajen kasuan, hilabete osoa kobratuko da.

**1.10 VIAT DUTEN TITULARREI AUTOPISTAKO JARDUNA BIDALTZEA POSTA ELEKTRONIKO BIDEZ:** baliabide horri esker, VIAT gailuaren titularrak diren bezeroek posta kontura (posta elektronikoa) PDF dokumentuak igortzeko eskatu ahal izango diote KUTXABANKi eta horietan gailuarekin egindako autopistako mugimenduak azalduko dira islatuta. Mugimendu horiek bereizita igorriko dira, bezeroak nahi erara inprimatu ditzan.

- Bidalketaren kostua: 0,20 euro.
- Hilean lau igorpen.
- Zerbitzuaren hileko fakturazioa 0,80 eurogatik, VIAT laburpenean.

 kutxabank	<b>URRUNEKO BANKA</b>	EPIGRAFEA <b>14</b>
	Egun honetatik indarrean: 2015-09-16	3. orria 3(e)tik

**1.11 BULEGOA INTERNETEN:** baliabide honi esker, bezeroak bulegoetan ohikoak diren hainbat eragiketa egin ahal izango ditu, bezeroarentzat onuragarriagoak diren komisio-baldintzetan.

## 2. TELEFONOA

Telefono bidez bezeroaren kontratueta eta beste zerbitzu batzuetara sartzeko sistema guztiak jasotzen ditu; gaur egun erakundeak zerbitzu hauek betetzen ditu:

- Transferentziak (1)
- Baloreen salerosketa bezeroen eskutik (2).
- Txartelen alta ematea eta kopia egitea (3)
- Eskudirua ateratzeko eragiketa kreditu-txarteletan (4)
- Ziurtagirien jaulkipena (5)
- Transferentziak atzerrira (6)

(1) 82 epigrafeari erreferentzia egiten dieten komisioak aplikagarriak izango dira, hain zuzen, eskuzko transmisioko transferentzietan.

(2) 09 epigrafeari erreferentzia egiten dieten eta 9.1 Balore Burtsak atalari dagozkion komisioak aplikagarriak izango dira.

(3) 83 epigrafeari erreferentzia egiten dieten komisioak, 1 eta 4 atalei dagozkienak, aplikagarriak izango dira.

(4) 83 epigrafeari erreferentzia egiten dieten eta 3- Eskudirua kredituan ateratzeko eragiketa atalari dagozkion komisioak aplikagarriak izango dira.

(5) 08 epigrafeari erreferentzia egiten dieten eta 3- Askotariko informazioa bezeroei atalari dagozkion komisioak aplikagarriak izango dira.

(6) 86 epigrafeari erreferentzia egiten dieten komisioak, 86.3 atalari dagozkionak, aplikagarriak izango dira.

**1. oharra** Komisioetan edo urruneko bankuaren zerbitzu horietan aplikagarriak diren gastuetan egindako aldaketak banan-banan jakinaraziko zaizkio bezeroari, 15 eguneko aurrerapenarekin.

**2. oharra** Urruneko bankuaren zerbitzu bakoitzean, eragiketako aplikatu beharreko komisioak dagokion atalean adierazitakoak izango dira, indarrean dagoen araudiaren arabera BEZa edo dagokion zerga gehituta.